

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juantxo Elizegi Zapirain Prailetarra

*Oiartzun,
Gipuzkoa
(1938-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Itturralde baserrian jaio zen. Aita Itturraldekoa zuen eta ama, berriz, Aldura baserrikoa. Aitak baserrian egiten zuen lan, eta ama kalera jaisten zen esnea eta fruta saltzera. Joxe Aizateko eskolan ibili zen umetan. Baina oso gaztetatik mendian egin zuen lan bere anaiekin batera. Bi anaiek lanak hartu eta gero lau anaia aritzen ziren zuhaitzak bota, zuhaitz landareak aldatu, mendia garbitu, mendi-bideak egin... eta gisako lanetan. Zegama, Aizkorri edo Arantzazu izaten ziren uda parteko lan-tokiak, eta gero behera jaisten ziren neguan. Askotan aste osoa pasatzen zuten mendian, lana, otorduak, lo... dena bertan egiten zutela. Itturralde urruti xamar gelditzen zela eta, Joxek hogeita sei urte inguru zituenean, Karrikako Gartxienera aldatu ziren ama eta semeak. 35 urte zituenean mendiko lana utzi eta Beta fabrikan hasi zen lanean. Han aritu zen hogeitau urte inguru. Gero ardiak jartzea erabaki zuen eta Eskontsegi berri baserrian jarri zen bizitzen eta ardiak hazten. Baina handik gutxira artzaintza utzi beharra izan zuen. Geroztik Petra Lekuona Egoitzan bizi izan da.

Zintak

OIA-091

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-06-14
- **Iraupena:** 130 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com